

# NETIKETA ARAUAK ETA PARTEKATZEKO BAIMENAK

## NETIKETA ARAUAK

Internet erabiltzen dugunean hainbat puntu kontuan hartu behar ditugu:

Eskolak plataforma seguruak eskaintzen ditu guztiontzak (irakasleak, ikasleak, gurasoak, langileak...) gure hartean lan egiteko, kolaboratzeko, proiektuak aurrera eramateko, partekatzeko,... (GSuite, Office 365)

Hala ere, badira Interneten modu seguruan lan egiteko kontuan izan beharko genituzkeenak guztion ongizate eta segurtasunerako, hala nola, argazkien publikazioak, erosketak....Gaur egungo herritar bakoitza mundu digitaleko herritarra ere bada eta ulertu behar ditu zein diren hiritar digital izatearen eskubideak eta erantzukizunak.

### Arau orokorrak:

- Zure erabiltzailea eta pasahitza pribatuak dira, ez partekatu inorekin.
- Izan adeitsua eta lagungarria taldeko kide guztiekin.
- Ez izan beldurrik laguntza eskatzeko.
- Zure ideiak eta baliabideak beste kide batzuekin partekatzeko libre sentitu.
- Errespetatu kopia-eskubideak (Creative Commons)
- Beste kide batzuekin kolaboratu.
- Adi egon, ikertu, ikasi eta dibertitu.
- Ez erabili hizkera iraingarririk.
- Denon iritziak balio dute, ez izan partekatzeko beldurrik!

## PARTEKATZEKO BAIMENAK

Partekatzen dugun material guztiak (argazkiak, testuak, audioak, marrazkiak...) gureak dira eta ezingo lituzke inork partekatu gure baimenik gabe, eta berdin gertatzen da besteek partekatutako materialarekin ere.

## SEGURTASUNA SAREAN

Creative Commons lizentziak guk sortutako lanen baimenak kudeatzeko aukera simple bat ematen digute. 6 lizentzia mota daude, baina denak ematen digute autore horrek lanak partekatzeko eta garrantzitsua da irudi, abesti, testu... bat partekatu aurretik nor den jabea eta zer motatako lizentzia dugun.

Eduki berrerabilgarriak bilatzea funtzio garrantzitsua da. Google erabil dezakezu Creative Commons edukiak bilatzeko, Flickr argazkiak bilatzeko, unsplash edo pixabay irudiak bilatzeko...

## Eskolako araudia (laburpena )

- Bi ataletan internet eta gailuen erabilera egokiari buruz hitz egiten da.
- Eskolako AJA dokumentuan ere jasota dago.

